


ANAITASUNA

254. zenb.

1973.eko apirilaren 30ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

EZ ZARA HIL, PICASSO!



Irudi eta koloreen ehizari,* pintatzaeri, utzi badiozu ere, ez zara hil, Picasso! Bizirik dirauzu eta iraunen duzu artegintzaren erresuma* argitsu.

Erraldoi* antzera, 91 urteren gaindegi horretara heldu eta zeure begi zorrotz horik* hertsiki dituzun uneon, nork neur* dezake, zeure 200.000 lanetan zehar isuri duzun jeinutasun guzti hori?

Azken aldietako artegintzak, zurekiko duen zor kalkulagaitza dolumentan aitortzen dizun bitartean, Michelangelo eta Leonardorekin batera, margoen zeruan betirako sarrerazi nahi zaituzten bitartean, utz iezaguzu euskaldunoi ere gure zorra aitor diezazugun bederen.*

Gure kondairako egun beltz haietan, saminkide nola agertu zintzaizkigun, gure zorigaitza mundu osoaren aurrean nola oihukatu zenuen ez dugu inoiz ahanztuko.

Zure esku artegak* gogortu dira, zure begi zoliak itzali dira, baina zeure irudi oinazetuetatik deihadarka segitzen duzu, mundu zaharraren salatari eta berriaren profeta.

Hel bekizu gure euskaldun hitz laburra esker onaren agergarri; eta jakizu, ba duzula leku bat atsedean hartzeko gure hildakoen ondoan.

Egun handira arte, Paulo!

X. MENDIGUREN

Errotariaren errotarria

«Illa onen 15-an jaia bat ospakogu...»

Nik eta Euskal Herriko jende gehienok makina bat honelako irakurri dugu. Eta nik eta Euskal Herriko jende gehienok hainbat umore txar bildu dugu; honelako edo antzerako fraiseak ikusirik. Hemen gure artean, hain demokratikoak izanik, dena da libre, antza.

Bitartean, beste asko hor dabilta diskutitzen: euskara batua honela egin behar dela, bestelako aditz forma batzuk onhartu behar direla, eta abar. Burrakak, eztabaidak, erabakiak (hartu eta bete ez) eta beste mila honelako darabilagu, jende askoren barregarri eta geure buruen kaltegarri. Hala ere, gaur ez naiz honetaz mintzatuko, euskaraz agertzen diren zenbait paperez eta abarrez baidak, esate baterako, herri jaietarako argitaratzen diren programez.

Gaiari loturik, hau esango nuke: dirudienez, euskal munduan, ortografiarik elementalena eta Euskaltzaindiaren arauak martzianoentzat eta haien jarraitzaileentzat direla.

Segur nago, oso lotsagarri izanen litzatekeela inprimaria batentzat, hurrengo hau inprimatzea: «Segidamenten tendran okasion deber un hespektaquilo eszezional». Holakorik eginez gero, inprimaria gaixoa! Jende guztien barregarri eta enpresaren hondamendi, hegal guztietatik «anathema sit» franko jasan* beharrean aurkituko litzateke. Baina euskal letretan ez baita honela gertatzen, mundu espezial batetan bizi garela pentsatzen dut.

Gure artean, edozeinek munta dezake programa bat, edozelan.* «Aterako direz programak beren egunean», «haurren heuren leiaketan egiten duten pintxurak» eta honelakoak nonnahi irakur daitezke. (Adibide hauk,* nolabait batasunaren aztarrenak* erakusten dituen programa batetik jaso ditudala esan behar dut). Euskaltzaindiaren arauak bost axola* zaizkie, praktikan behintzat. Liburu eta aldizkari erreakzionarioenak betezen dituzten arauak ere ez dira betetzen: «r» gangardunaz* idatzirik ere ikusi dugu.

Ez naiz honetaz luzatuko, gauza nabaria* baita.

Ez ote da beharrezko, egoera honi konponbide bat bilatzen hastea? Ez dakit, konponbiderik izango denentz; baina nik hau proposatuko nuke: Euskaltzaindiak idatz diezela inprimatzaileei, batez ere euskal programak, propaganda paperak eta antzerakoak ateratzen saiatzen direnei, bere erabakiak onhar ditzatela eskatuz («aginduz» idaztera joan nahiz, baina geure egoera barregarriaz oroitzen naiz). Edo, bestela, inprimatzaileok, Euskaltzaindiaren irakasle titulua lortu duten edo euskaltzain diren zenbait jendegana jo dezatela. Posible balitz, honek ere alfabetatze bidea jorratuko luke. Jende askok euskaraz irakurtzen duen bakarttoa, xehetasun hauk dira; eta berau ere oker eskaintzen badiegu...

NATXI

dezatela, **da**ela
diegu, **de**tsegu
diezela, **de**ioela, dezaiela
ditzatela, **da**iezala
zaizkie, **j**akez

Haurrentzako irakurgaiak

Irakurgaien urritasuna ikusirik, eta ikastolako eta ikastolatik kanpoko haurren beharrei begira, irakasle talde batek lan horri heldu dio.

Irakurgai hauk* apiriletik hasi dira argia ikusten. Gai errazak eta haurrentzako interesgarriak erabiliko dituzte; gainera, haurren marrazkiz horniturik joango dira.

Oraingoz, hiru sorta aterako dira:

- KUKURRUKU sorta, 6-7 urteko haurrentzat.
- XANTXANGORRI sorta, 7-8-9 urtekoentzat.
- ABEREAK sorta, 7-8-9 urtekoentzat.

Honekin, haurren liburutegi bati eman nahi diogu hasiera. Horretarako, idazle eta gaien ugaritasuna behar da.

Nonbait irakurria dut, erdaraz 2.500 bat titulu argitaratu zirela ihaz edo orain bi urte. Oso urruti gabiltza. Gutti izateaz gainera, beste akats bat ere izaten dute, euskaraz argitaratzen diren apurrek: gehien gehienak erdaratik euskarara itzuliak direla. Ez ote dago gure artean hainbestearainoko imajinaziorik?

Irakurgai hauk ateratzeko, Cinsa Bilboko editorialaren laguntza izan dugu: 200.000 pezeta aurreratu dizkigu. Eskerrak bertotik.

TOMAS ELORTZA

Euskaltzaindiko Prensa Bulegoaren* Agiria

Apirilaren 6 eta 7an Euskaltzaindiak bilkura bereziak antolatu ditu, aditz batuaren lana aurrera eramateko. Aditz batzordeko jaunek eta euskaltzain osoek parte hartu dute bilkura hoietan. I hazko uztailean* egindako jardunen segida izan dira oraingo hauek. Haiek Arantzazun, hauek berriz Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, egin dira.

Bilkura hauen ondorioa izan da, aditz laguntzaile guztiari, zuketako forman, buru eman zaiola. Beraz, urrats* handi bat egin da batasunerako bidean. Onarturik izan diren aditz formak, euskaltzain oso guztiei (Bilbora etorri direnei eta etortzerik izan ez dutenei) bidaliko zaizkie, oharrak egiteko epe bat emanez. Ohar hoiek jaso eta aztertu ondoren, aditz honen birrespena (ratifikazioa) eskatuko zaio Euskaltzaindiari.

Birrespen hori iritxi* bezain laster, Euskaltzaindiak berak egingo du aditz honen argitaratze ofiziala.

ANAITASUNA Bizkaia
Hamabosterokoa.

Zuzendari ordezkari: Imanol Berriatua.

Idazkari: Josu Torre.

Bulegoa: Pelota, 4-1.º - Bilbao-5.

Inprimatzaile: AMADO, Mazarredo, 35 - Bilbao-10.

Moldatzaile: RALI, Particular de Costa, 12-14, 3.º - Bilbao-10.

XX. urtea.

D.L.: BI-1.753 - 1967.

IKASTOLAKO ALDIZKARIA GALBIDEAN

«Ez da, ez, dena kalteko izan» esan beharko litzateke guztia-
ren ondotik, edo, hobe, guztia-
ren gainetik. Segidan kontatuko dut
gertatua.

Hara! Ikastoletako irakasleok ba dugu (ba genuen) aldizkari sas-
tar bat bizpahiru urte honetan. Haur baten antzera, lehen urratsak*
emanik zituen eta xutik bezain azkarki ibiltzen hasia zen. Hazbidean
barna zihoan; baina egun doilor* batetan, ekaitz bolada zèn egun
horietako batetan, izaki* xumearen* ezinaz eta eguraldi itsusi har-
taz baliaturik, galbidera bortxatu zuten gaiztagin baten hatzaparrek.

Kanpoko gaiztaginen beldurretan beti, eta etxe barnean izanki,*
alafede!

Ba da zenbait istorio* triste, gisa* honetan gertaturik, bazte-
rretan; eta horrelatsu izan da gure aldizkariarena ere. Zertarako
jarrai? Gainera, atzera gehiegi begira egoteak ez du batere merezi,
non eta gure aldetik izan zitekeen errua xuxentzeko ez izanik.

Gauzak horrela, leiho berri bat ireki zaigu ustekabeen hiru
hilabeteren ondotik; zeren* hazileko* hilabeteen baitzen delako egin
doilorra. Orain leiho berria ireki dugu, bai. ANAITASUNA kazeta
honek bere orrialdeak eskaini dizkigu irakasleoi eta halaber* ira-
kasleok onhartu, ikastolentzat sar litekeen aire sanoa guztiontzat
osangarri izanen delakoan. Esan gabe doa, oztopoak oztopo, le-
hengoa leihoa ere ez dela arrunt* hertsirik.*

Horra, beste gabe, haurra ekaitzaren menpe gogorretik, orain-
goz bederen,* salbatua! Ez dugu uste, gerora ere ekaitzik jasan*
beharko ez duenik; biziaren legea da. Baina, tira! leiho irekitze ho-
nek arnasa berria dakarkioke,* eta beraz, bere historiaren bigarren
parteko urratsak fermuki eman ahal izanen ditu.

ASMO ETA XEDEAK

Nolanahi delarik ere, besterik dugu orain arazoa: zinez* inte-
resgarri diren gaiak xehatuz, orrialde hau herriari eskaintzea. Ego-
kiera on bat presentatu zaigu, eta horrexek bultzatu giatu bereziki

ANAITASUNArekiko harremanetara. Sei mila harpidedun ANAITA-
SUNA kazetak; laurehun zituen gure aldizkariak. Hurbiltzekorik* ere,
garbiro dago.

Baina ez da dena puntu horretan. Ba da diferentzia gehiagorik
ere, baldin eta biak elkarrekin gonbaratzen jarrai* bagintez. Kaze-
tak, edozer gai delarik ere, laburki eta bixiki erabiltzea eskatzen
du, eta idazmolde aproposa du, aldizkariak (gure aldizkariak) berea
duen bezalaxe.

Aldizkariak, aitzitik,* sakonkiago joka lezake eta jokatu behar
du, irakasle arteko aldizkari bat izan nahi badu batik* bat: hots,*
gauza teknikoagoa behar duela izan.

Hauxe da, ximpleki esanik, puntu honetan ukan* dugun gako,*
eta irakasleok, geure artean erabakia hartu aurretik, behin eta be-
rriro eztabaidatu duguna.

Gaiak, funtsean,* berdinak edo berdintsuak izan daitezke bietan:
Euskara-Pedagogia-Psikologiak elkarrekin osatzen duten mundu ho-
rretan ibiliko garela, alegia.* Ba da hor, noski, gaur egun, non jo-
rraturik, zer aztertutik, zertan argi egin edo bilaturik. Hitz batetan,
heziketaren arloa dadukagu begien aurrean; eta, zernolabait, aipa-
turiko hiru sail horietara besoak hedatzen* dituen arloa da izan.

Gaiak xehatzen direlarik, jakintza mailako artikulua atera dai-
tezke adibidez, edo eritzi eta kriterioak lantzen diren herrietako
tirabira eta gertakariaren informazio zehatza, edo eta han hemenka
bilduriko berri labur eta albiste* jakingarriak.

Irakasleen aldetik, hamar-hamabiko multzo batek osatzen du «al-
dizkariaren talde arduraduna» delakoa; eta hau izango da ikastolei
buruzko orrialde bakoitzaren antolatzaile ANAITASUNA kazetan ere.

Gisa honetan, bada, abiatzen gara; eta, bide eginez aurrera goa-
zen heinean,* bide berriak aurkituko ditugula uste dugu.

BARKAIZTEGI

Ikastolako berriak

Ikastola liburuaren banatzaile

Aspaldi honetan liburuaren arazoa, hein* batetan bederen,* kon-
pontzen hasia da gure ikastoletan. Garbiro ikusi dugu, ez dela aski*
liburuak idaztea, inprimatzea edo argitaratzea, baldin eta gero sal-
tzen ez badira, edo saltzeko bideak ez badira egiten.

Memento honetan, salketari buruz genuen gakorik* nagusia.
Salketari erritmo bat ezarri behar zitzaion, liburuak argitaratu arau*
saltzeko. Bestela, ez zen aurrera jotzea posible.

Gure ustez, arazoa konponbidean ipini da. Jaka anaiek hartu dute
beren gain gure liburuaren salketaren zama.* Ez da dudarik, ikastolen
konfidantzá ongi irabazia duen jendea dela. Beraz, nonnahi dabilta-
larik ere, abegi on bat opa diegu presentatzen diren leku guztietan.

Lau liburuxka berri

Nork ez du ezagutzen «Lehen-irudi, Lehen-hitzak» delako sorta?
Liburuxka egokiak benetan, haurrek irakurketa-idazketa hastapenak*
egin ditzaten. Liburuxkekin batera, kaxa bat darama bakoitzak, hiz-
ki* eta irudizko fitxekz beterik. Gainera, diapositibak.

Material ona, biziro egokia, nola irakasleentzat hala gurasoent-
tzat. Metodo tradizional orotatik* at,* bide berrietan barna dator-
kigu. Are* gehiago esango genuke: euskaraz irakasteko ere apro-
posa dela, ez bakarrik ttipien mailarako, haur helduagoentzat ere
bai. Adibidez, zortzi-hamar urte edo gehiago duten haurrak ezin
daitezke gramatika hotzaren bidez euskara ikasten has.* Guztiz
lan alferra edo halatsu dela ba daki honetan ari denak. Gisa* ho-
netako metodoren bat behar litzateke. Ttipien mailan behinik behin
ez dugu dudarik egiten. Behar genuen, eta... ba dugu.

Hamasei liburuxkak osatzen du sorta. Lehendabiziko laurak le-
hen eman ziren argitara: Pertsonak, Etxea, Janaria eta Jantzia. Bes-
te lau orain: Lorategia, Dendak, Landa eta Ipuinak. Azken ukitu eta
xuxenketak eginik dira jadanik,* eta egun asko baino lehen eskuetan
izanen ditugu.

Batzordeko Lehendakari

Aspaldi batetan ikastola eta euskararen alde nafar lurretan hain-
bat lan eginiko gizona dugu J. Cortes Izal. Eta esan dezagun ere,
aspaldidanik isilpean eta aski* erretiraturik zegoela. Orain, Iruine-
ko San Fermin ikastolan Batzordeko Lehendakari egin dutela jakin
berri dugu. Gure zorionik jatorrenak berari!

Lehen ba zuen gaztetasuna, lanerako grina eta eginkizun horreta-
rako behar den irekitasuna. Gauzak asko aldatu dira urte guttitan
nonnahi, eta... Iruinean ez gutiago. Argia eta zintzoa denez, jabe-
tuko ahal da horretaz!

«Mikelar» ikastola berria

Urteotan mila gorabehera izan den herria, Lazkano.* Zer esanik
ez ikastolaren arloan: goitik, behetik, ipar- nahiz hegoaldetik ukan*
du oztopoa ugari. Baina azkenik, behinik behin, urratu du herriak
bere bidea, eta nortasunaren ezagugarri on bat eman: erro errotik
ikastola berria eraiki du. «Mikelar» du izena.

Ikastola dotorea eta bipila* dela diote ikusirik dutenek. Lazka-
notarrek berek hala uste dute; baina ez hainbat, egituraz etxemolde
egokia delako, baizik eta batez ere jendeak **hauzo lanean** parte har-
tuz altxatu duelako. Egun, albistea* soilki eman baino ez dugu egi-
ten. Aipatuko dugu luzaro eta xehetasunez geroko batetan.

X. X.

darama, **daroa**
dezagun, **daigun**
diegu, **deutsegu**
diote, **dinoe**
ditzaten, **daiezan**
dizkigu, **deuskuz**

lezake, **leike**
zaigu, **jaku**
zihoan, **joian**, joaten zen
zitekeen, **eitekean**
zitzaion, **jakon**

Ateak nola?

ANAITASUNA errebistaren Zuzendari jauna:

Neure jaun ez-eguna:

Zure ordeko den (hala irakurtzen dut errebista horren ale bakoitzean) Aita Imanol Berriatuaren bitartez, karta hau bidaltzeko ohorea dadukat. Karta honen arrazoia, ene azken liburua den LAU TEATRO ARESTIAR de lakoaren kontra-azalean erraten* dena da: errebista horretarako ateak hertsit* zaizkidala. Ohar hori ez dut nik eginga, ene editorearen bizkar jar ahal bailiteke; baina, hala ere, nik ere suskribatzen dut bertan errandakoa, «Anaitasuna-ko ateak hertsit bide* zaizkidala», (eta kontura zaitez, hor **bide** guztiz egoki bat ezartzen dela).

Egia da inoiz ez zaidala erran, ezin eskriba dezakedala zuen orri-aldeetan. Baina, erretolika handiko andre baserritarraren antzean, eman egin zait aditzera: «Ez diotsut hemendik joan zaitezela, baina atea hor duzu».

Zeren zuen errebista horretan egin zaidana bezalako zentsura bezalakorik ez baitu orain artean egundo neure lumaren zorrotzetasunak ezagutu. Artikulu ongi landuak, poesia koadratuak, atzera bota zaizkit; eta, gainera, ez zait batere arrazoi funtsezkorik* eman, zergatik ez ziren argitaratzen. Ortografiaz eta morfolojiaz aldatu zaizkit neure eskribuak, neure gainean besteek sufritzen ez zuten diskriminazio izugarri bat eginez; hitzak ere aldatu zaizkit, neure solasaren erran-nahia horrela aldatuz.

Egoera horren aurrean kontuak eskatu nizkien Berriatua eta Quintana jaunei, eta erantzuna pronto etorri zitzaidan: Errebistaren ideologiaren kontrako zer-erranik ez nuela erran behar. Orduan hau eskatu nuen: erran zekidala, ea zein gai ukitu behar ez nituen, eta zein uki ahal nitzakeen. Ez nengoela ni batere konforme zentsurarekin; eskritoreari mintzatzeko libertatea ukatzen baldin bazitzaion, hobe zuela eskritoreak, klasikoen hiztegiak taxutzea edo pinpilipausak* kolekzionatzea. Baina

nola niri zorian* tokatu baitzait, eskritore izateaz gainera, euskal-eskritorea izatea, zentsuraren joko hura* amestitu behar nuela, euskararen amorez behintzat, baina aldez aurretik jakin behar nuela lehen errandakoa: joko horren erregelak zein diren. Eta ez zitzaizkidan eman; eskriba nezala, eta eskribuaren gainean, kasu konkretu bakoitzean, emanen zitzaidala ezetzpena nahiz baietzpena.

Honi deitzen ez bazaio ateak herstea, zeri deituko diozu? Atea zabalik egonen da; baina bertatik ene gorputz haragitsua iragan dadin, meharregia* da, ez naiz hortik kabitzen. Edo, bestela, atea zabalik utzi duzue, baina ata-aitzinean ata-zakur hortz-handi bat ezarri duzue, zentsura diskriminatorio baten zakur amorratua; eta, nik, jauna, neure ipur-mamiak entero gorde nahi ditut, ez dut nahi ezein* zakurren dostailu edo atxeki-gailu* izan daitezen.

Hau erran dut: **Zuen ateak hertsit BIDE zaizkidala.** Karta honen medioz, neure erran horretatik itzuli nahi naiz atzera. Beraz, karta hau argitara dezazuela eskatu nahi natzaizue zuen errebistan, eta beroni erantzun egoki bat eman diezadazuela, egiazki zentsura ofizialaren eta eklesiastikoaren gainetik zentsura gogorrago bat dagoen zuen errebistan, eta zentsura horren artaziek* zein diren ebakitzen dituzten materialak, nik honela neure eskribuak orientazio finko batetan gerta ahal ditzadan. Neure eskaria betatzen baldin badidazue, esker-onez kunpliturik aitortuko dizuet: **ZUEN ATEAK ZABALIK DITUT.** Bestela, neure errandakoari **BIDE** egoki hura kendu beharko diot.

Zure erranetara gelditzen naiz,

GABRIEL ARESTI

ZUZENDARITZAREN ERANTZUNA: Harrigarri iruditu zaigu, zinez esanik, Arestik eskutitz honetan dioskuna, hots, beste inon ez duela eduki, ANAITASUNAK egin omen dion bezalako zentsura gogorrik.

Egia da, ANAITASUNAK zenbait artikulu ez dizkiola onhartu Arestiri, beste inori onhartuko ez zizkioken arrazoi berberetatik. Horietako batzuk, irakurlearen argibiderako, LUR editorialak argitaratu ditu aurten bere «Euskal Literatura 73» izeneko liburuan.

Ortografiaz eta idazteko moduz aldatu zaiona, berri adierazi ondoren egin da, irakurleek hobeki ulerrezaten.

ANAITASUNAREN ideologiaz ari denez gero, hortxe ukan du Arestik, 1972.eko otsailaren* 29an ANAITASUNAK argitaratu zuen Manifestua.

OPORRALDIAK
Tren, untzi eta hegazkin
txartelak

Ezkonberri bidaiak
Arazo bidaiak
Xofer gabeko automobil alokatuak

VIAJES
ECUADOR

«BILBOKO BIDAI AGENTZIA»
Arriagako Plazan, 1 — Tel. 242468

... **Zuen zerbitzutan**

(G. A. T. n.º 68)

Neure lantokitik

UNIBERTSITARIAK URDURI

Bilboko Unibertsitatetik lau ikasle jaurtiki dituzte, eta, honen ondorioz, zuzendaritza eta ikasleen artean zegoen tirabira gogortu egin da.

INFRASTRUKTURAREN FALTAZ

Euskal Herria, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan, aitzinamenduaren* mugara heldu da. Dadukagun infrastruktura (kumunikabideen aldetik bereziki) handitzen ez bada, aurreramenduaren itobeharra sortuko da. Egia esan, sortu da jadanik* Bilbo inguruko toki industrializatueta. Adibide bezala, Burtzeina aipatuko dut.

Gizartearen sostengua ekonomia izanik, erraz ulertzen da nokalo garrantzia duen infrastruktura egoki bat ahal den arinen antolatzeak.

BARTZELONAKO GANBARA

Bartzelonako Merkatalgo* Ganbara liburuxka oso interesgarriak argitaratzen hasi da. Eskuarte dute Indonesiaz egin duena; eta laster zabalduko du beste bat Filipinas uharteetaz.*

Argitalpen hauk* nazioarteko merkatalgoa hedatze-ko* eginak dira, eta, ene ustez, euskal esportatzaileentzat oso interesgarriak.

Eskatzekotan, hau da zuzenbidea: Cámara de Comercio, Primo de Rivera, 11. Barcelona-2. Prezioak: **Indonesia** 90 pezeta, eta **Filipinas** 75. Jasordainduz* bidaltzen dituzte.

INDONESIA

Euskal esportatzaileak Indonesiako merkatuaren garrantziaz jabetu daitezten, hona hemen lurralde horri buruzko zehaztasun batzuk.

Indonesia gaur Estatu libre bat da. Hiru mila uharte ditu eta 1.650.000 kilometro koadratu. Hainbat urtetan holandesen menpean egon da; eta oraindik ere nabaritzen* da haien influentzia, nahiz eta indonesiarrek lehengo dominatzaileen aztarrenak* kendu nahi. Adibidez, Indonesiako kultura eta historia ezagutzeko, beharrezkoa da holandes hizkuntzan argitaraturiko milaka liburu aztertea.

Baina tuze-zabalean Indonesia handia bada, bizilagunen aldetik ez da txantxetako, 80 milioi ditu eta. Hiri-burua Yakarta da, Java uharteetan, bere hiru milioi bizilagunekin.

Ekonomia

Telegrama antzean emango ditugu jakingarri batzuk:

- Langileen soldatak oso behean daude. Adibidez, Hong Kong-eko langileek lau bider gehiago irabazten dute.
- Analfabetismoa handia da: % 53.
- Lanik gabe dauden langileak % 33 dira.
- Absentismoa lantegietan handia da.
- Bideak oso txarrak eta eskasak dira.
- Industria hastapenetan dago. Adibidez, zementugintzan, 1971. urtean, 543.700 tonelada atera ziren. Oihalgintzan, urte berean, 650 milioi metro.
- Goragoko maila batetan, hau da, lan sakonago bat eskatzen duten zeretan, tresna zatien muntaketa hutsa egiten da: josteko makinak 32.600 urtean, irratik aparatuek 311.900, telebista aparatuek 5.600.

Nazioarteko merkatalgoa

Esportazioak: Petrolio (541 milioi dolar 1971. urtean), zura* (168 milioi), kautxo (223), eztainua (60), kafea (55), palmondo olio (51), tea (28), eta abar.

Inportazioak: Janariak (182 milioi), kimika produktuak (175), papera (29), oihalgaiak (154), makinaria (196), auto eta bizikletak (153), eta abar.

Japon eta Amerikako Estatu Batuak dira, Indonesiako merkatalgoa ia monopolizaturik dutenak. Indonesiak uxatu nahi du monopolio hori; eta hortik dator euskal esportatzaileentzat, merkatu honek duen garrantzia.

Beraz, ea Eibartarrok (eta Eibartar ez zaretenok) bide berriak zabaltzen dituzuen euskal produktuentzat!

Informazio hobeto bat gura izatekotan, hona hemen Indonesiako merkatalgoaz arduratzen direnen bulegoaren* zuzenbidea:

GINSI
Importers Association of Indonesia
1, Djalan Madjapahit
YAKARTA (Indonesia)

Kartak ingelesez idatz.

PICASSO

Orain urtebete inguru, euskal artista eta idazleek omenaldi bat egin nahi genion Picassori, eta, bide batez, «Guernica» koadroa Euskal Herrira etor zedin eskatu. Baina gure asmo horiek ez zuten aurrera joateko posibilitaterik eduki, baimen ofizialen faltaz.

Orain, zenbait kazetalarik haserre jarri dira, Picassok bere bildumako koadroak, El Prado-ko museoari eskaini beharrean, Louvre-koari ematea erabaki zuelako. Baina kazetalarik horik* ez dira konturatzen, Picassok egin duena, azken finean, justizia hutsa izan dela: babes eta beroa eman zion nazioari, bere eskerrona erakustea.

XABIER GEREÑO

dadukagu, **daukagu**
genion, **geuntson**
zedin, **eiten**
zion, **eutson**



MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jan-tziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, **MENURI**
Muelle de Uribitarte, 15 **BILBO - 1**

Gure Munduko Albisteak

Liburu berriak

Anuario del Seminario de Filología Vasca

«Julio de Urquijo» V (1971)

Julio Urkijoren izeneko Euskal Philologi Mintegiko urtekaria azkenean argitara azaldu da, atzeraturik bada ere; ale honetan, hain zuzen ere, Don Julioen ehunurtebetetzea ospatzeko.

Beste artikulu askoren artean, L. Villasante, L. Michelena eta M. Lecuona jaunek egindakoek merezi dukete aipamena, nork bere erara Urkijoren euskal nortasuna darabilala. Bai eta, P. Uzkiuri esker, liburu berean publikatzen da **Tresora hirur lengualetakua: frantsesa, espainola eta heskuara**, lehen aldiz 1620. urtean agerturiko obraren euskal zatia, duen merkatal hiztegiagatik zinez interesgarria.

Noiz ukanen ditugu era berean argitaraturik eta salgai XVII. mendeko autore guztien lanak? Gure «euskal» editorialek dute honetan hitza.

Eskatzeko: **Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» V (1971)**, Ed. Diput. Prov. S. Sebastián, 1973.

«Muga beroak», Juan Mari Lekuonak, GEROn

«Etor» editoriala, gutun baten bidez E. Aierberen salakuntzak erabat faltsuak zirela deklaratu ondoren, berriro ere argitaratze lanari ekin zaio, atzeraturik zeduzkan zenbait obra agerteraziz. Beraren programan dakusagunez, liburu mordo ederra du publikagai; baina arazo interesgarri honetaz hurrengo batez mintzatuko gara.

Juan Mari Lekuonaren liburu hau (lehen, oker ez bagaude), idazleak bere bizitzan zehar edukiriko eragin ezberdinen ondorioa da, poema bakoitzak, egin zèn garaiko tankera eta euskara agertuz. Nolakotasunari bagakizkio, zirarra sortzen duten liburu horietako bat dela esan dezakegu, lirismo nabariak. Lehen mailako poeta baten aurrean gaude, noski.

Hitzaurrea, oso argigarria, Xabier Letek egin dio, eta azal eta barreneko irudi bortitzak Edorta Kortadik.

Eskatzeko: LEKUONA, Juan Mari: **Muga beroak**; Gero, Ed. El Mensajero, Bilbo, 1973.

Nafarroa lau urtarotetan

Jadanik William Shakespearek bere komedia batetan esana zigun: **Navarre shall be the wonder of the world** (= Nafarroa munduko miraria izanen da). Baina oraino inori dudarik gelditzen bazitzaion, hortxe dago Julio eta Pio Caro Baroja anaiek, Nafarroako Diputazioaren diru laguntasunaz, oraintsu agertu diguten filme ederra: **Nafarroa lau urtarotetan**.



III. Euskal Anthropologi Astean, apirilaren 5 eta 6an, Bilboko **Actualidades** zineman obra hori ikusteko parada ukan genuen, bai eta zeharo gustaturik gelditu ere. Filmeak, funtsean, Nafarroako ethnographia erakusteko eginan izan arren, ba ditu, horregatik, hainbat zati dokumentu hutsak ez direnak, konposatze eta arte ongi zaindu batez moldatuak.

Gaia, izenak berak dioenez, Nafarroako bizimodu tradizionala da, lau urtarotetan zehar filmatua. Gure begien aurrean hainbat lanketa modu —batzuk, oraindik egiten zekiten zahar batzuek birpiztuak—, ohitura, dantza, erromeria eta jai ezezagun agertu ziren, bai eta kolore zoragarriko alderdi naturalak ere. Alde nabaria dago, gure ustez, bere jatorrizko euskal nortasuna gorde duen Ipar Nafarroatik, berea galduta, inoren jokamoldeez ari den Hegoaldeko Nafarroara. Hemen irauten duen ezagugarri nagusienetako bat, hots, erlijioa, modu ia fanatiko eta irrazional batez azaltzen zitzaigun filmean. Benetan kontsideragarri.

Filme hau gaztelaniaz azaldua da, baina euskarazko elkarrizketa eta kanta ugariz hornituta dator. Agian zati batzuetan euskara gutiegi, deritzogunez, zeren, bere ofizioaren teknikak euskaraz ikasi dituen errementari bati, berak erdipurdiko erdara batez esanaraztea oso egoki ez baita, ez eta ethnologi alde soiletik ere. Dela dela, giza lan guztietan egoten diren akatsok gorabehera, oso bikaina iruditu zitzaigun filmean.

Dakigunez, Nafarroako Diputazioak eragin duen filme hau, erresuma zaharreko herri eta eskola guztietan erakutsiko da. Lan polita eta beharrezkoa, halafede, nafar agintariak herri nortasunaren alde egiten dihardutena. Filmearen kostua milioi erdikoa izan omen da. Hainbeste ote, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste diputazioek —milioi erdi bana gastaturik— beste horrenbeste egin ez diezaguten? Pirinio Atlantikoetako prefekturak ez, baina agian Errioxako Diputazioak: aurrea hartuko die.

Besteak datozen artean, gure zorionak nafarrei eta Caro Baroja anaia biel.

Aditzaren batasuna

Bilbon, apirilaren 6 eta 7an, Euskaltzaindiko aditz batzordeko lankideek hiru bilera egin zituzten, euskal aditza batzeko. Bilera hauetan, estudio askoren ondorenez eta euskalkien izpiritu eta aberastasun guztiak ondo kontuan harturik, akordio anaikor batera heldu zen, ondorioz, guztiok itxaroten genuen aditz laguntzaileen batasuna lortuz.

Dantzugunez, izan, ukan, edin eta ezan aditz laguntzaileen formak azkenean batu izan dira, datibo ethikodun adizkiak (hitanozkoak) izan ezik. Pauso garrantzizko bat denik ezin uka, beraz, Euskaltzaindiak bere onspena eman zion proposamendu horri, eta bere gain hartu zuen aditz forma horik ofizialki publikatzea. Beronespena, berriz, maiatzaren azken egunetako bileran eginen omen zaie.

Hurrengo urratsak, dakigunez, hitanozko formak eta aditz syntetikoak batzea izanen dira. Zain gaude, ba.

Bizkaian esne gehiegi omen dago

Lurlangintzarako ordezkari probintzialak esan duenez, esnegintza haundiegia dago Bizkaian; baina horregatik esnefabrikek litro bat ere utzi gabe bildu omen dute baserrietan.

Funtsik gabekoa omen da, jaun berberak adierazi duenez, hygiene dela eta, Bizkaiko esnefabriken kontra ari den propaganda xarreko kanpaina. Hauk ere konfirmatu gabeko zurrumurrak izan arren, marmarka ibili da aspaldion gure artean, esne nahasi eta kutsatua saltzeagatik multa eder bana jasoa zutela Bizkaiko esnezentral biek.

Zurrumurrua gabe, egia biribila dena, aldiz, hauxe da; zentral horiek harakinei koipe eta gantz pila ederrak erosten zizkietela; eta, dazagugunez, ez dute hor xabojirik egiten. Esne xar gehiegi, nonbait.

Madriren separatistak ote?

Apirilaren 7an Madrileko YA egunkariak bere lehen horrialdean **Aupa Euzkadi!** bitxi bat zekarren. Irakurleak esaldi hori zertara zertorren ez dakielakoan, aipatu artikulu hori, Eurovisión-era presentatzeko zegoen **Mocedades** bilbotar kantari taldeari animo emateko zela argituko dugu. Nork esanen zukeen: non eta Madriren horrelako oihiak botatzen! T.O.P.koak hor atzetik ebiliko dira nonbait izan ere, ez da gutiagorako.

Federiko Krutwig jauna berriz ezkondu da


Federiko Krutwig Sagredo jaun euskaltzain osoa, aurtengo martxoaren 31an, Agnes Caers andrearekin —Lovainako eta Parisko Unibertsitateko irakaslea berau— ezkondu egin da Lovainan.

Gauza ezaguna denez, Krutwig jaunà bere lehen emazteagandik dibortziaturik zegoen aspaldian. Beren bizitze berri honetan zoriona opa^o diegu.

Katalan hizkuntza eta literaturaren

III. Batzarrea Cambridge-n

Londresko BBCek elkarrizketa harrigarri bat agertu zuen apirilaren erdian Cambridge-ko Unibertsitateak Katalan hizkuntza eta literaturaz eratu duen III. Batzarrea dela eta. Hartan ingeles gazte batzuk katalanez mintzatzen azaldu ziren, eta, irratilari katalanaren erantziz, edozein bartzelonar bezain ongi gainera.



Ingalaterran apirilaren 9tik 14erarte egin zen III. Batzarre hau, Antoni Badia i Margarit jaunaren zuzendaritzapean zegoen. Cambridge, bestalde, ezaguna da katalan munduan, bertako katalan katedra dela eta.

Gure ustez, 7 milioi pertsonak eguneroko bizitzan darabilaten hizkuntza batek are^o harrera gehiago eduki beharko luke, honelako kultur saioei dagokienez, bertoko informabideetan, ez baita batere dotorea, bertoko prentsak eta irratiek mutu dirauten artean, BBCtik katalanez entzutea.

Vuelta al País Vasco-aren nortasunik eza

Aratz-ek aurreko ANAITASUNAN ba zioskun, Euskal Herrian, hizkuntz bitasuna gabe, diglossia genuela nagusi. Eta arrazoia zuen. Euskara ez da oraino kanpora irteten. Inork honetaz dudarik balu, hortxe dago, urrunago joan gabe, **La Vuelta al País Vasco** delako zyklisto norgehiagoketa. Espainiakoari **Vuelta**, Frantziakoari **Tour**, Italiakoari **Giro**, Kataluniakoari **Volta** esan arren, ba dirudi eratzailen burutik ez dela pasatu Euskal Herrian ba dagoela gaztelaniaz beste hizkuntzarik.

La Vuelta al País Vasco gabe, **Euskal Herritiko Inguru**a ezin jar zitekeen? «Vuelta» esateko ezin erabil zezaketen jaun eratzaille horiek **Inguru**, **Inguratze** edo horrelako zerbaitekin, katalanen **La Volta** bezala, berez nongoa zen adieraz lezakeen izenen bat?

Noski, «El **Inguru** al País Vasco» lekarkete egunkarièk; baina hori «Vuelta» baino hobea litzatekeelakoan nago, bertoko tankera emanen bailioke.

Udako unibertsital ikastaroa

Deustuko Unibertsitateko ikasle batzuek eraturik eta euskal unibertsitalgoari begira, uztailen^o uda ikastaro bat egonen da euskaraz, **Philosophia** eta **Letrak**, **Zuzenbidea**, **Ekonomia**, **Sozial Zientziak**, **Biologi zientziak**, **Musika** eta **Arte**, **Ederrak** gaitzat harturik. Udako unibertsital ikastaro hau hamabost egunetako bi txandatan banaturik egonen da, txanda hakoitzak hamar edo hamabi eskolegun^o dituela. Eskolak goizean izanen dira, eta 50 minututako iraupena edukiko dute.

Ikastaro honen xedea^o gure unibertsitarietara euskararen bidez kultur formazio bat eskaintzea da, dugun euskal unibertsitaterik eza —nolabait, oso oso nolabait— arintzeko.

Argitasun gehiagorako: U.I.U. Deustuko Unibertsitatea, Ap.1, Bilbo.

Unamuno maisutzat


«Auñamendi» editorialak gutun^o bat zabaldu berri du, propaganda gisa.^o Euskaltzaindiak —J. M. Satrustegiren lanari esker— publikatu duen euskal izendegi ofiziala banatuz. Eskertzekoa, duda gabe, editorial horrek euskal izen jatorren alde egiten duen ahalegina.

Liburuxka horrekin batera, berriz, Unamunoren artikulua bat dator, editorial horrek prezeki^o inprima erazia, eta gaztelaniaz H letra gaizki erabiltzen dutenen kontra moldatua. Gauza kuriosoa: Miguel de Unamunok, erdal aldizkarietan zehar nozik behin agertzen diren zenbait kazetalariren antzera, gaztelaniatik H letra kendu beharko litzatekeela dio; baina horietako inork ez du bere exemplu propioaz predikatu.

Gauza bitxiagoa, ordea, Gaztelara begira dauden euskaltzale horien kasua. Erdal Herrian H-ak kendu nahi dituztela?... guk ere bai! Gaztelaniaz **ph**, **th**, **kh** ez dagoela?... euskaraz ere ez orduan! Erdaraz hauxe edo horixe erabakitzen dutela?... guk ere gauza berbera! Hauxe bai dela inoren burutik pentsatzea. Eta zer esanen dugu, azkenik, euskararen heriotza lehen bai lehen nahi zuen bilbotar horren eritzia hauzi honetan legetzat dakartenengatik?

Ez gaude —ezin egon gaitzke— konforme Don Miguelen kriterio gaztelanizale eta xobinistaz. Euskarak berez daduzkan hotsak gordetzen ahalegindu behar dugula uste dugu, T-ak, zein M-ak, zein H-ak izan, inguruko erdarek kasurik egiteke.^o Kultur bidetik heltzen zaizkigun nazioarteko hitz grekoak direnean, berriz, aleman, frantses edo ingeles hizkuntzen bideari hobe deritzogu —internazionalagoa baita— gaztelaniarenari baino. Honetaz, azken bolada^o honetan ba dakusagu,^o hauxe dela, hain zuzen ere, gero eta euskal unibertsitari gazte gehiagok hautatzen dutena: hitzak grekotik zuzen hartzea. Agian hauxe dateke^o euskal belaunaldi^o ikasi gazteak hizkuntza idatziari ezarriko dion beste ezagugarri bat.

Ingeleseuz **mythology**, **ethnology**, **psychology**, **physics**, **geography** eta **philosophy**, frantsesez eta alemanez **Mythologie**, **Ethnologie**, **Psychologie**, **physique** (**Physik**), **Geographie** eta **Philosophie** darabiltzate. Eta gaztelaniaz **mitología**, **etnología**, **sicología**, **física**, **geografía** eta **filosofía** direlako, euskaraz, **mythologia**, **ethnologia**, **psykologia**, **physika**, **geographia** eta **philosophia** gabe, erdaraz bezala (**mitolojia**, **jeografia** eta holakorik ez denean!) idatz dezagun nahi ote dute halakoek? Utikan^o erdaltzaleok! Ba dugu euskaldunok geure bidea hautatzeko garaia.



Picasso, bizi zaitugu

Horixe da, euskaldunok zuregatik esan dezakegun bakarra. Zure obra —besterena ere dena— ikusteko, euskaldun begirik dagoen artean ezingo da esan Picasso hil denik.

Gernika hor dago, tragedia baten adierazpen iraunkorra. «Zeren^o iruditzen zait ezen^o oraino bizi zarela, begien aitzinean^o zaitudala...»

ARMENDARITZ

daude, **dagoz**
dezagun, **daigun**
dezakegu, **daikegu**
die, **deutse**
diegu, **deutsegu**
diezaguten, **deiskuen**
diguete, **deuskue**
gaude, **gagoz**
lezake, **leike**
lioche, **leuskio**
zaie, **jake**

zaio, **jako**
zait, **jat**
zaizkigu, **jakuz**
zeduzkan, **ekuzkan**, zeuzkan
zekiten, **ekien**
zigun, **euskun**
zioskun, **inoskun**, esaten zigun
zitzaigun, **jakun**
zitzaion, **jakon**
zizkieten, **eutseezan**

Pedro Ortuzar "Iturri" bertsolaria

Orain urte batzuk hainbat urtetan Euskal Akademiak prestatu zituen bertsolari txapelketen berri duenak —eta ez dira guti kasu horretan daudenak— ba daki Iturri bertsolaria nor den. Mungian hiru aldiz hartu zuen parte txapelketetan; baina aurreneko mailara iritxi* ez arren, ezaguna zen Bizkaiko zenbait plazatan bere ateraldi zorrotz eta egokiengatik.

Geroztik txapelketak egiteari utzi egin zitzaion, alde zurretik jantziak urratzen zituztenen eta berauen inguruko batzuen erruz; eta harez gero gauzak gaizki joan dira. Orain ez du inork jantzirik urratzen. Debekuak ere izan dira, Bizkaian ere bai; eta ezin kantatu izan da, nahi izan den moduan. Beste alderdi batetik, kantariak ere sortu dira; eta, gauza berdina ez baldin bada ere, bertsolariak zenbait kasutan aztarnarik* asko utzi dute hauek artean. Ez, ordea, behar litzatekeen beste, zorritzarrez.

Orain ahalegin guztiak egin beharko dira, jarrai dadin lehen bultzatua. Orduan milaka asko eta asko mugitu zituen pertsonatan. Orain beste horrenbeste gertatuko al da? Ikusi egin behar. Ohiturak urtetik utera aldatzen ari zaizkigu. Nola txerta* berriengan bertsolaritza? Horra hor galdera. Erantzun bat eman behar zaio datozen urtetan, eta erantzun euskalduna, gainera.

Iturriri lagunduz egin nahi den bertsolari saiorako baimenak eskuratuak ditu Euskal Akademiak, nahi genduen moduan zeharo izan ez baldin bada ere. Honek bide bat irekitzen digu; eta alferrik galtzea pena izango litzateke. Apurka apurka bidea zabalagoa egiten saiatu beharko dugu, gainera.

Saioa Gernikako frontoian izango da maiatzaren 13an, goizeko hamaika ta erdietan. Parte hartuko dutenak hauk dira: Arregi eta Mugartegi Berritukoak, Lizaso, Agirre, Lazkano eta Gorrotxategi gipuzkoarrak, eta Madariaga eta Arozamena nafarrak. Puntuak nik neuk jarriko dizkiet, artikulu hau firmatzen dudana honek.

Iturri, gehienok dakizuenek, elberritua gelditu zen, lanean ari zela; eta harez gero, medikuen artean ibili ondoren, bere bizitze osorako ezindua gelditu da, eta txirringadun aulki batean ibiltzen da.

Honen etxera agertu gara —Muxikan bizi da— ene emaztea eta biok, eta ikatzezko erretratu bat egiten hasi natzaio. Artikulu honekin batera ikus dezakezuna da. Bide batez galdera batzuk egin dizkiet.

—Ze izen dau zure baserriak?

—Iturriaga.

—Baiña zuok zelan deitzen deutzazue bertoko euskeran?

—Iturrija.

—Zelan esaten dozu «mano» euskeraz?

—Eskue.

—Ze urtetan jaio ziñan?

—1933. urteko aprillaren 25ean.

—Noz asi ziñan bertsoak kantetan?

—Amabost urte baiño lentxoago Enbeitagaz eta.

—Nor? Balentin?


—Bai, bera. Gerekiz-en, Morgako partean egin neban lenengoz. San Esteban jaia zan. Geroago zuok egin zenduezan txapelketetan iru aldiz artu neban parte. Txapel-dunak Ormaetxe, Lopategi eta Ajuria izan ziran orduan.

—Zeinbat seme-alaba dozuz?

—Neska bat eta mutil bi.

—Noz izan zan zure alde egin zan jaialdia?

—1971. urteko urriaren 30ean, Gernikako frontoian. Arri jasotzailleak, dantzariak eta pultsolariak artu eben parte, baiña bertsolariak ezin izan eben.



—Ia ba oraingoan bertsolariak bakarrik egiten dabene, legekoa dan moduan.

Berriketaren ondoren, magnetofotik bertsoak entzun ditugu. Igaz urriaren 12an Markinan bazkalondoan bertsolari batzarrean botatakoak. Gureak ere han agertu dira.

Eta besterik gabe, agur egin diegu etxeko guztiei.

ALFONSO IRIGOYEN

dabe, dute
deutzazue, diozue
diegu, deutsegu
digu, deusku
dizkiet, deutzadaz
dizkiot, deutzadaz
eben, zuten

natzaio, natxako
neban, nuen
zaio, jako
zaizkigu, jakuz
zenduezan, zenituzten
zitzaion, jakon

GUIPUZKOA

4. POLITIKA ERAKUNDE ZAHARRENA (II)

ALKATETZA NAGUSIAK

Alkatetza nagusiak «distrito municipal» bezala jotzen ditu Gorosabelek. Haien jatorria ez dakigu noizkoa den. Dena dela, Probintziaren ordenantza nagusietan, alkate-tza nagusiak 1375. urtean agertzen dira.

Saiatz

Saiatz izenarekin ezagutzen zèn haietako batek, Bidania, Goiaz, Beizama, Errezil eta Aia herriak hartzen zituen hasiera batean, eta gero Albiztur ere bai.

Alkatetza nagusi honek ba du batasun bat. Probintziaren saihets bat dirudi. Hortik ote izena? Diogunez, ba du batasun bat, Aia bazterreragotxo badago ere. Honetaz besteek ba dute erdian herri eder bat: Bidania. Ez dakigu, Bidania eta Goiaz elkartu zirenean, nola ezarri zieten bi herrioi Bidagoian izen aldrebesa. Gaurko gizarte beharriaz eraginik, Saiatz osatzen duten herriek —Aiak egiten ez badu ere, besteek— udal* alderdi berri bat egin beharko dute, jendez urritzen baitoaz eta gaurko burokrazi ugaritasun eta beharriaz berritzapen hori eskatzen baitute.

Aiztondo

Asteasu buru zelarik, Larraul, Sorabilla eta Urnieta-ren Lasarteko alderdia hartzen zuen alkatetza nagusi honek.

Areria

Alkatetza nagusi hau hurrengo herri eta herrixkekin osatzen zen: Lazkano, Olaberria, Itxaso, Arriaran, Gabiria, Ezkioga, Zumarraga, Ormaiztegi, Astigarreta eta Gudugarreta.

Beraz, gaurko Goiherriaren zati handi bat hartzen zuen, nahiz eta batasun gehiegirik eduki ez. Beharbada, lehenago, Nafarroako erresumaren* garaletan, alkate-tza hau handigoa zen, 1027. urtean Iruineko apezpikute-

giak idatzitako antolakizun dokumentu batean agertzen denez. Gaurko Goiherri osoa guti gorabehera hartuko zukeen? Ez dakigu.

BATASUNAK

Probintziako Batzar Nagusietara elkartuta joateko, eskualde* txiki bateko herritxoek osatzen zituztèn batasunei, «uniones» deitzen zitzairen. Gaurko eskualde neurrietara heltzen ez baziren ere, beharrezko da batasun hauk* aipatzea, Gipuzkoako geografia historikoa jakiteko komenigarri baita.

Batasun horik* ez ziren beti berdinak. Izan ere, herri bat gaur batasun batean bazegoen, bihar beste batean aurkitzen zen. Horregatik, herriak birritan aipatuta ikusiko dituzu behin baino gehiagotan.

Hauk ziren batasunak:

Ainsuberreluz: Alkitza, Anoeta eta Hernialde.

Aizpurua: Alegia, Ikaztegieta, Orendain eta Altzo. Alegia zen batasunaren hiriburua.

Andatzabea: Zuzurkil, Orio eta Usurbil.

Artamalastegi: Idiazabal, Mutiloa eta Zerain.

Bozue Nagusia: Amezketa, Abaltzisketa, Baliarrain eta Altzo.

Olabide: Ibarra eta Belauntza.

Oriau: Alzaga, Arama, Gaintza, Isasondo eta Zaldibia. Aramako elizpea zuten batzar leku.

Argisano: Zumarraga, Ezkioga eta Gabiria.

Atazalbea: Ataun, Zaldibia eta Beasain (ATAunZALdibiaBEAsain). Hemen ikusten den bezala, izen hau gaurko Benelux delakoaren antzera sortu zuten: moda zaharra, noski.

Irimo: Antzuola eta Urretxua.

Zegama: Zegama, Zerain, Mutiloa, Ormaiztegi, Astigarreta eta Gudugarreta.

San Esteban: Ormaiztegi, Astigarreta, Gudugarreta, Zerain eta Mutiloa.

Villafranca: Ordizia, Beasain, Zaldibia, Arama eta Ataun.

Legazpia: Legazpia eta Zerain.

Zubiberria: Amasa, Anoeta eta Zizurkil.

PARTZUERGOAK

Araba eta Gipuzkoako herri batzuek ba zuten, eta oraindik ere batzuek ba dute partzuergoan basoen jabetasuna eta gozamina.* Ez goaz, hemen partzuergo guztiak aipatzera. Bat bakarrik aipatuko dugu, Bozuekoa, honek, eskualde jabetasun komun batez gainera, eskualde nortasun eta geografi batasun bat ere zuelako.

Bozueko partzuergoak herri hauk hartzen zituen: Amezketa, Abaltzisketa, Orendain, Ikaztegieta, Baliarrain, Ordizia, Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gaintza, Isasondo, Lazkano, Legorreta eta Zaldibia.

J. L. LIZUNDIA

zieten, eutseen
zitzairen, jaken

BERTSOLARIAK GERNIKAN

Eguna: Maiatzaren 13an, goizeko 11 t'erdietan.

Tokia: Gernikako frontoia.

Parte hartzen dutenak: Arregi, Mugartegi, Lizaso, Agirre, Lazkano, Gorrotxategi, Madariaga eta Arozamena, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroakoak.

Puntu jartzaile: Alfonso Irigoyen.

Prezioa: 75 pezeta.

Sarrerak non saltzen diren: Gernikako Bar Juanjo, telefonoa 851032; Euskaltzaindia, Ribera 6 (Bilbo), telefonoa 212745, eta Gernikako frontoian.

Zergatik egiten den: Pedro Ortuzar «Iturri» bertsolari elberrituari diru laguntasuna eskaintzeko eta bide batez bertsolari saio gehiago egin ahal izan ditzagun bideak urratzeko asmoz.

AZKEN ORDUKO OHARRA: Oraintsu jakin dugunez, Gernikako frontoiko obrak, uste zen baino atzeratuago dabilta; eta horregatik ez dakigu oraindik segur, egun horretan egin ahal izango den. Hala gertatuko balitz, garaiz jakin eraziko genizueke noiz egin daitekeen.

Nazioarteko diru erakundea (1914-1939)

Aurrekoan esan genuenez, bai liberalismoa eta bai urre patroia, Britainia Haundiak bere inperioa hedatzeko* erabili zituñ tresna batzuk izan ziren. Lehen Gerrate ostean,* ordea, gauzek ez dute berean irauten.

Alde batetik, USA kapitalismoareñ gidaritza hartzen hasi zen, eta haren inguruan sortutako polarizazioa areagotu* egin zen. Britainia Handia, aldiz,* motelduz zihuan. Ikus, bestela, manufaktur produkzioari dagozkion datuak (mundu guztikoarekin konparatuz):

	1870	1919
Britainia Handia	% 31,8	% 12,5
USA	% 23,3	% 39

Gainera, Londresko City ez zen aurrerantzean munduko finantza plaza bakarra izanen. New York etorriko zen laster, eta Paris geroxeago. Adio aintzinako finantza monopolioa, adio aintzinako super-erresuma baten zentralizazioa!

Beste alde batetik begiratzuz ere, aipatutakoa dakusagu.* Inbertsioak honela mugitu ziren, eta bai mugitu ere!

	\$ milioiak	
	1974	1919
I. USAk kanpoan inbertitua	3.500	7.000
II. Kanpokoek USAn inbertitua	7.200	3.300
(I-II) Batez beste (USAn partetik	-3.700	+3.700

Baina nagusigo hau ez zen egun batean finkatu. Britainia Haundiaren errenditzea prozesu luze bat izan zen; eta tartean ibili ziren, gainera, Alemania, Japon eta beste zenbait Estatu.

Tirabira ugari sortu zen. Baina ez zioten espezializazioari heldu (nazioarteko lan banaketak eskatzen duen legez*). Burruka ez zen «norgehiagoketa leial» batean oinharritu, baizik eta ia Estatu denek gero eta gehiago jo zuten protekzionismora. Mugak hertsitu* egin ziren, edo, behinik behin, zaildu haien sarrerak. Salerosketak asko urritu ziren.

Eta pentsa dezagun: super-Estatuak ez bada, liberalismorik ez bada, (prezioen gorakada eta errearen eskasia kontatzeke*) nola funtzionatuko urre patroiak?

USA izan zen, gerra denboran eta ondoren eskuratutako urre piloarekin, urre patroiarekin iraun ahal izan zuen Estatu bakarra.

Soluzio bat bilatzeko ahaleginik ez zen falta. Adibidez, 1922.ean Estatu gehienetako mandataria Genovan bildu ziren. Hemendikan atera zen urre patroia ordezko sistema: Urre Ganbio Patroia. Honekin, paper eta banku dirua, errearekin ezezik, dolar eta librarekin ere babestuko da; eta bi dibisa indartsu hoiekin salerosketak aurrera eramateko behar den diru likidatasuna sortuko da. Baina, oraingoan, sistema honek ez du aurrerabiderik izanen. Oraingoan, Urre Ganbio Patroia kontua paper erre da.

Britainia Handia —lehengo inperioaren ametsa berpiztu nahirik edo— 1925.ean urre patroira itzuli zen, baina alferrik, zeren* bere ekonomiaren ahulezia* areagotu* besterik ez baitzuen egin (orain izan zen «greba* nagusia», alokairuak* anitz* jaitsi ziren eta).

Azkenik, 1929.eko Krakada ekonomikoak lur jota utzi zuen hain zutabe* kaskarretan oinharritutako etxea.

Krisiaz geroztik, nazioarteko elkar laguntzaren azterrenik* ere ez zegoen. Krisia, lan gabezia (batez beste % 28!!) Estatu bakoitzak besteei esportatu nahi izan zuen.

Salerosketa eta beste ekonomi harremanik zegoenik ere esaterik ez dago. Orain eremu* ekonomikoak daude, eta bakoitzean diru klase bat da nagusi: honela libaren eremua, dolarrarena, aleman markoarena, eta abar.

Gerra bitarteko azken urteetan, Estatu boteretsuak bi talde edo multzotan banatzen dira. Alemania, Japon eta Italiak faxista taldea osatuko dute, eta ez kasualitatez, baizik eta beren egoera sozio-ekonomikoaren eraginez. (Beren industria teknika aurreratu batean finkatuta dadukate. Lur zabalera ttipikoak dira eta lehen galetan txiroak.* Pagamenduen balantzea zorduna dute hirurak; eta batez ere urrea falta zaie, diru erakunde ezarekin zerbait erosteko derrigorrezkoa den sasoi honetan).

Beste taldea USA, Britainia Handia eta Frantziak osatzen dute. Hoiek dadukate urre guztia. Horregatik, bigarren gerrari «urrearena» deitu izan zaio. USA izanen da honen benetako garailea.

JOSETXO EZPELETA



Emakume, gizonezko eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonezkoentzako jantzi aukeratuena, azken modara eginak

HURI ZAHARRA

"Casco Viejo"

BILBO

KATAMUTURLUZZEA (8)

Eta gaur Arantzazura. Izan ere, leku guti dago Euskal Herrian Oinatiko bazter hori bezain zoragarririk. Bertan aita frantziskotarrek komentu ederra dabe, Oteitza eskultorearen irudi ikusgarriekin, arantze* moduko dorre luze apainez hornitua. Ha* bai toki egokia gorputz eta arimaren bakerako. Hara joan dira, bai, Enekoren etxeko guztiak; eta, bideari tipi-tapa jarraituz, Urbiaraino heldu dira, bertatik Haizkorriko harkaitz biluzi zuriak ikusteko. Hantxe bazkaldu eta, arratsaldean, hontzitu* baino lehen, berriro itzuli dira Arantzazurantz, automobila utzi ebèn lekura.

Komentu ondora heltzean baina, Bilborako bidea egiten hasi baino lehen, Goiko Bentara sartu dira, hango tabernan freskagarri batzuk edateko asmoz. Bertako ormetan* inguruko basapiztien larru asko agertzen dira, bai eta animalia disekatu ugari ere, eguzkilore* haundi biribilen artean. Piztia haietako batek, buztan luze zuri beltz eta larru* nabardunak, Enekoren begiradak erakarri ditu; eta, hobe* ez, ha zer pizti mota ote dan osabari galdetu deutso behingoa.*



—Honi katamuturluzea deritzo —**dinotso Martinek**. Hauxe da, Erdi Haroan, katua ezagutu baino lehenago, etxeetan egoten zàn abere sagu-harrapatzailea. Orain, berriz, zeharo menditarra bihurtu jaku; baina ez da, hala eta guztiz ere, oso gaiztoa. Ikaraturik egoten danean, buztana kirimilatzen* dau, suge bat bailitzan,* eta xilioka hasten da; baina ez dau horregatik haginka egiten, eskua gainean ezarri ezik.

—Oso luzea izaten da, osaba?

—Metro erdikoa izaten da luzeran; eta buztanak ia ia beste horrenbeste dauka: gorputzak beste* ia. Kolorea, dakusazunez,* grisa edo gaztaina izaten da, puntu beltz askorekin. Buztana, beti beltza, erhaztun zuriz hornitua, basakatuarenen gisakoa,* baina meheagoa eta luzeagoa.

—Eta zer jaten dau katamuturluzek, ba*?

—Bere moduko piztiak jaten dabena: erbiak, arratoiak, saguak, xorikumeak, sugeak eta basafritu ondo heldu eta gozoak. Gehienetan gauz ibiltzen da ehizan,* egunsenti eta arratsetan bizkor egonez. Egunean lo egiten dau, bere habian gordeta. Habia zuhaitzen zuloetan edo haitz artean egiten dabe. Katamuturluzek ez dauka bista onegirik, baina bai usai-

men zoli zolia; horregatik jatekoaren bila usnaz* joaten da atzetik, txakurren antzera, beti ixilka-mixilka ibiliz.

—Zer izen dau katamuturluzek erdaraz, osaba?

—Espainolez **gineta** eta frantsesez **genette** (= jenet). Nazioarteko izena, aldiz, **Genetta genetta**.

—Kumeak zein sasoitan egiten ditue?

—Maiatzean edo ekainean,* eta hiruzpalau izaten dira gehienetan.

—Euskal Herrian ugariak ote dira katamuturluzek, osaba?

—Hara! Bizkaian eta Gipuzkoan ez, baina Araban eta Nafarroan oraindik ugari xamar dira.

—Eta orain ez da inon erabiltzen katu gisa*?

—Hemen ez, baina Afrikako iparraldean bai; berbereek aberetzat darabile,etxeko saguak eta arratoiak jan daizan. Ba dago gainera beste gauza bat, oraindik kontatu ez deutsudana animalia honetaz. Katamuturluzek, bere familiako beste animaliek bezala, ipurdi aldean, uzkiaren ondoan, poltsatto bat dauka, gurintxa* bat, usain handiko gai bat dariona. Gai horri euskaraz «musketa» esaten jako; eta hortik lurrin* karuak egiten ditue perfumistek, andreen apainketan erabiltzeko. Euskal Herriko katamuturluzek musketa* gutti dauka. Baina ba dago Asian **zibetha** izeneko katamuturluze haundittoago bat, gai hori ugari ematen dauana; eta horregatik karioletan hazten dabe bertan, musketa ateratzeko.

Era berean, katamuturluzearen familiakoa dozu **mangosta**, Indiako suge kobrak hiltzen dituan piztiatto adoretsua.

TRAUKO

dabe, **dute**
daizan, **ditzan**
darabile, **darabilate**, darabilte
deutso, **dio**
deutsut, **dizut**

dinotso, **diotsa**, esaten dio
eben, **zuten**
jako, **zaio**
jaku, **zaigu**

Euskal estudioei buruzko nazioarteko

mintzaldiak

Bordeleko* Unibertsitatean, maiatzaren 3tik 5era, «Euskal estudioei buruzko nazioarteko mintzaldi» batzuk eginen dira, Etienne Dravasa, Jean Haritschelhar, Alfonso Irigoien, René Lafon eta Luis Mitxelena irakasleen zuzendaritzapean. Jaun hauez gainera, Pierre Lafitte, J. M. Satrustegi, Miguel Artola, Vincent Garmendia, Gregorio Monreal, Mr. Goihenetche, Pablo Fernández eta Jesús Arpal-Poblador-ek hartuko dute parte Bordeleko hitzaldi hauetan.

Anthropologi eta arkheologi mintegi berri bat deustuan

1971-1972.eko ikastaroan, Deustuko Philosophia eta Letretako Fakultateak eraturik, Historiako espezialitatearen barruan, lehen aldiz Arkheologia erakutsi izan zen, Juan Maria Apellaniz jauna irakasle zelarik.

Ikastaldien jarraipen praktiko bat legez,* joan zèn uztailen* Galdamizko* Arenaza haitzuloan arkheologi azterketak hasi ziren, **Dirección General de Bellas Artes** delakoari esker eta J. M. Apellaniz eta J. Altuna paleontologo famatuaren zuzendaritzapean.

Deustuko, Bizkaiko «Seminario Diocesano» eta Madrileko ikasle talde bat, lan egin eta ikasteko, bertara joan zen. Ikasleen artean sortutako gogoaren fruitu bezala, Historiako azken urtea egiten ari diren lau gaztek arkheologi arloan aurkitu dituzte beren lizentziatuetako tesina gaiak.

Euskal Herriko historiaurrea* aztertzeke aukeratutako aztarnategiak* hauk izan dira: Bizkaian, Atxeta (Forua), Bolinkoba (Abadiño) eta Lumentxa (Lekeitio); Araban, «el montico de Txarratu». Aldiari dagokionez, Bizkaiko aztarnategietan Magdaleine aldia aztertuko dugu, eta Arabakoan, aldiz,* Mesolithos delakoa. Erabili ditugun arkheologi gaiak Bizkaiko Histori Museoan eta Arabako Museo Probintzian daude.

Beste aldetik, ikastaro honetan Historiako espezialitatean ematen den Anthropologia Kultural deritzan asignatura ere Apellaniz jaunak erakutsi ukan* du. Irakasle honek irakasten zuen, hain zuzen ere, asignatura berbera Zientzia Sozialetako eta Theologiako fakultateetan ere. Bi zientzi mota hauetan interes handi bat sortu zela eta, Unibertsitateari Anthropologia eta Arkheologia ikasteko mintegi berezi bat eskatu zitzaion; eta, Historiako espezialitatearen zuzendariari eta Fakultateko dekanuari esker, ihazko abenduaz geroztik Mintegi berri bat dugu Deustuan.

Esan behar da, gainera, Anthropologian azterketak egiteko, beste talde bat ere sortu dela. Arlo honetan aukeraturiko tesina gaia zera da: Bizkaiko herri bateko famili egituren eboluzioaren aztertzea, anthropologi alderditik ikusita beratu. III. Euskal Anthropologi Astea dela bide, Julio Caro Barojarekin elkarrizketa interesgarri bat izateko era* eduki genuen. Euskal Herriko eta Bizkaiko anthropologia ikasteko proposatu zituèn azterketabideak, oso egokiak iruditu zitzaizkigun.

Esanen dugu, bai eta ere, gure Mintegiko arkheologi azterketak aurrera doazela, eta, hain zuzen, datorren Aste Sainduan Burgosko iparraldeko herrirka batean, Atapuerca-ko aztarnategi famatuan ekingo gatzajzkiola geure lanari. Uztailen,* berriz Galdamizen.

Amaitzeko, aipamen berezi bat egin nahi genuke, Bizkaian aldean Ethniker deritzan beste talde baten lanari buruz. Talde honen helburua Bizkaiko ethnographi estudioa da. Astero elkartzen gara guztiok geure Anthropologi Mintegian, geure lanean sortzen zaizkigun mila arazoei buruz mintzatzeko.

Eta besterik ez. Gauza bakar bat gehitu beharko genuke: gure ateak zabalik daudela, horretan interesa duen edozein ikaslerentzat, eta gure aldetik, Euskal Herriko arlo hauetan lanean ari diren beste talde batzuekin ere harremanak eduki nahi genituzkeela. Honetarako, euskal aldizkarien bidez, geure dei hau bidaltzen dizuegu. Gure norabidea hauxe da:

Deustuko Unibertsitatea

Philosophia eta Letretako Fakultatea

(Seminario de Antropología)

Apartado 1. BILBAO

ROMAN BASURTO

Froga ezazu zuk zeuk

BYASS 96

ona dela izenez eta izanez



GONZALEZ BYASS

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

daude, dagoz
dizuegu, deusuegu
gatzajzki, gatzakoz
zaizkigu, jakuz
zitzaion, jakon
zitzaizkigun, jakuzan

HAU DUK UMOREA!

Euskaldun batek beste bati:

—Zer irakurtzen duzu, txo?

—Axularren liburua.

Besteak liburuari begirada bat egiten dio, eta ba diotso:

—H-z betea; gazteren bat izanen da Axular hori, ez da?

—Zer diozu, gizona? —laguna harriturik—. Ez al dakizu, Axular jadanik* hilda dagoela?

—A, barka! Nik ez ditut inoiz aldizkariak irakurtzen.

• • •

Erreka ondoan gizon bat arrainketan dago, kanabera bat eskuan. Beste batek, hura* ikusirik, honela galdetzen dio:

—Aizu,* zer harrapatzen ari zara?

—Dorbilindoak —erantzuten dio besteak.

—Dorbilindoak? Eta zertzuk dira horik*?

—A, horixe ez dakit —besteak seriocki—, oraindik ez dut bat ere harrapatu eta.

• • •

Ama batek bere semetxoari:


—Josetxo, har txokolate hau eta bana ezak heure arrebarekin kristau legez.*

—Eta nola banatzen da txokolatea kristau legez, ama?

—Besteari zatirik haundiena emanaz.

—Aizan,* Ainhoa! —diotso orduan Josetxok bere arrebari—. Bana ezan hik txokolatea, amak esan duenez.

GORAINO MESEDEZ!



GURUTZEGRAMA (19)

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2					█					
3							█			
4				█					█	
5			█							
6		█			█				█	█
7								█	█	
8				█		█				
9							█			
10				█						

Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Indarra duena (pluralean).—2. Izaria edo neurria hartu (infinitihoan eta alderantziz). Gure baserrietako abereek jaten duten garaua (artikuluarekin eta alderantziz).—3. Lur saila (pluralean). Galdegilea (alderantziz).—4. Suari dario (artikuluarekin). Izenorde posesiboa. Bokala.—5. Gizonek eta abereek jaten duten garaua (alderantziz eta errepikatuz). Eduki aditzaren iraganeko forma.—6. Kontsonantea. Bizkaiko herrixka (alderantziz). Aurpegian dugu.—7. Laguntza eman (partizipioan). Kontsonantea.—8. Gaixoa. Bokala. Izan aditzaren forma.—9. Zatia (pluralean). Erdiets.—10. Kendu (infinitihoan). Arteza (artikuluarekin).

Goitik behera: 1. Maisua (pluralean).—2. Metala (alderantziz). Zuhaitza.—3. Izan aditzaren forma («la» atzizkiarekin). Beharbada, nonbait.—4. Zintzoa, prestua (artikuluarekin eta alderantziz). Izenorde pertsonala. Kontsonantea.—5. Kontsonantea. Gabetasuna, gabezia (alderantziz eta artikuluarekin). Gorputz barruko hodia, odola ibil dadin (alderantziz).—6. Eduki aditzaren forma (alderantziz). Xoria (erepikatuz).—7. Begirada. Zentzuduna (alderantziz). Kontsonantea.—8. Bihurrikatu (partizipioan eta alderantziz). Garaua.—9. Oraindik. Bokala. Galdegile pertsonala (alderantziz).—10. Ezan aditzaren laguntzailearen forma, inperatiboan (hik ni eraman... Donostiara). Leku hartara.

AZALPENA: Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Indartsuak. 2. Neur. Artoa.—3. Arloak. Zer.—4. Kea. Zure. A.—5. Ba. Zedukan.—6. S. Ea. Aho.—7. Lagundu. H.—8. Eri. I. Zara.—9. Atalak. Lor.—10. Ken. Zuzena. Goitik behera: 1. Irakasleak.—2. Berun. Arte.—3. De. Gehiago». A. Nor.—10. Nazak. Hara. Kuku.—7. So. Zuhur. Z.—8. Okertu. Ale.—9. Are («are la. Agian.—4. Ona. Zeru. L.—5. R. Eza. Zain.—6. Dadukat. ba. Zedukan.—7. So. Zuhur. Z.—8. Okertu. Ale.—9. Are («are

HIEROGLYPHIKOA



Errenteriako semea

EUSKAL SALDA

A	L	G	N	U	R	R	A	L	E
P	R	O	R	R	I	A	E	X	T
P	A	G	A	S	A	B	O	T	X
E	L	H	A	Z	I	G	O	R	I
H	A	I	Z	K	O	R	R	A	N
O	R	T	Z	H	O	T	S	O	D
U	A	I	E	B	R	O	G	N	O
B	A	L	N	E	H	I	E	T	K
H	A	R	T	X	I	N	D	A	I
U	I	G	R	A	K	Z	I	B	O

Goiko koadro horretan Euskal Herriko zazpi mendiren izenak daude, zuzenean jarrita. Aurkituko ote dituzu? Kontuan hartu hebar duzu, eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, goitik behera, behetik gora edo eta zeharretara, diagonalean ere, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.



HIEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

Mitxelena

EUSKAL SALDAREN ERANTZUNA:

Larrun, Aralar, Haizkibel, Bizkargi, Txindoki, Gorbela, Orhi

HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

AGIAN, beharbada, nonbait.
 AHULEZIA, makaltasun.
 AIPATU, alpatutako, aipaturiko, aipaturikako.
 AISA, aise, erraz.
 AITZINAMENDU, desarrollo.
 AITZINEAN, aurrean.
 AITZITIK, al contrario.
 AIZAN, adi ezan, adi ein.
 AIZU, adi ezazu, adi eizu.
 ALBISTE, berri, noticia.
 ALDIZ, berriz, ordea, ostera.
 ALEGIA, a saber, es decir, esto es.
 ALOKAIURU, alojer, soldata, jornal, salario.
 ANITZ, asko.
 ARABERA, arauera, según, conforme.
 ARANTZE, arantza.
 ARAU, según, conforme.
 ARE, oraindik.
 AREAGOTU, oraindik gehiagotu.
 ARMADA, ejército.
 ARRAKASTA, éxito, succès.
 ARRAKASTA, arrakasta, éxito, succès.
 ARRUNT, guztiz, zeharo.
 ARTAZI, tijeras, ciseaux.
 ARTEGA, inquieto.
 ASABA, antepasado, ancestro.
 ASKI, nahiko.
 ASTIN, sacudir. (ASTINDU, sacudido).
 AT, kanpo, landa, lekora, fuera.
 ATXEKIGAILU, presa, proie.
 ATXETER, mediku.
 AURKIKUNDE, descubrimiento.
 AXOLA, ardura.
 AZTARNA, aztarren, arrasto, rastro, vestigio.
 AZTARNATEGI, yacimiento arqueológico.
 AZTARREN, aztarna, arrasto, rastro, vestigio.
 BA, bada, pues.
 BAGAKIZKIO, ekiten bagatzaizkio, ekiten bagatxakoz.
 (Ekin aditzaren forma).
 BAILITZAN, baillitzen, bailitz bezala.
 BATIK BAT, batez ere, bereziki.
 BAZTER, arrinconar, evitar. (BAZTERTU, arrinconado, evitado).
 BEDEREN, behintzat, behinik behin, gutienez.
 BEHINGOAN, berehala.
 BELAUN, generación.
 BELAUNALDI, generación.
 BERAIK, berak, eurak. (Beraiek aktibo, berak pasibo).
 BERRONESPEN, ratificación.
 BESTE, aina, bezaibat.
 BIDE, agian, dirudienez, nonbait.
 BIHUR, bilaka, convertir. (BIHURTU, bilakatu, convertido).
 BILAKATU, bihurtu.
 BIPIL, airoso, sólido.
 BOLADA, unada, temporada.
 BORDELE; Burdeos.
 BORTITZ, fuerte. (Berba hau latinezko fortis hitzetik dator).
 BORTIZKI, fuertemente.
 BULEGO, oficina, bureau.
 DAKARKIOKE, dakarkio (dakartso) nonbait.
 DAKUSAGU, ikusten dugu.
 DAKUSAZU, ikusten duzu.
 DAKUST, dakusat, ikusten dut.
 DANTZUGU, entzuten dugu.
 DATEKE, da nonbait, bide* da.
 DAZAGUGU, ezagutzen dugu.
 DEUS, ezer.
 DEUSEZTATU, ezereztatu.
 DOILOR, ruin, villano.
 EDOZELAN, nolana.
 EGITEKE, egin gabe.
 EGUN, gaur.
 EGUZKILORE, girasol, tournesol.
 EHIZA, caza, chasse.
 EKAIN, junio.
 ERA, abagadune, aukera, ereti, parada, ocasión.
 ERABAT, guztiz, zeharo.
 ERANTZUNKIZUN, responsabilidad.
 ERAUZ, arrancar, hacer desaparecer. (ERAUZI, arrancado, hecho desaparecer).
 EREMU, territorio, zona.
 ERITASUN, gaixotasun.
 ERRALDOI, gigante, géant.
 ERRAN, esan.
 ERRESUMA, reino, royaume. (ERREINU, reinado, règne).
 ESKOLEGUN, eskola egun, día de clase.
 ESKUALDE, comarca.
 ESKUARRA, fácil de tener.

EZEN, ze, pues, que.
 EZEIN, ninguno.

FROGATU, probado, demostrado.
 FUNTS, fondo, fundamento.
 FUNTSATZE, fundamentar.

GABE, barik, en vez de, au lieu de.
 GAKO, kako.
 GALDAMIZ, Galdames.
 GANGARR, cresta, crête.
 GANTZ, grasa sólida, grasse solide.
 GARRAZKIN, ácido.
 GISA, era, modu; bezala, legez.
 GORABEHERRA, a pesar, malgré.
 GOZAMEN, usufructo.
 GREBA, huelga.
 GURINTXA, glándula, glande.
 GUTUN, eskutitz.

HA, hura.
 HALABER, igualmente, así mismo.
 HARAKIN, carnicero, boucher.
 HAS, comenar. (HASI, comenzado).
 HASTAPEN, comienzo, principio.
 HAUK, honeek. (Hauek aktibo, hauk pasibo).
 HAZIL, noviembre.
 HEDATZE, zabaltze.
 HEIN, medida, proporción, grado.
 HERTSI, hetsi, hitxi.
 HISTORIAURRE, prehistoria.
 HIZKI, letra.
 HOBE EZ, claro está, cómo no?
 HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo).
 HORRIALDE, página, page. (Armendaritzek berba hau H-z idazten du, hosto hitzak H duelako. Hosto hitza —Oihenarteren horsto eta Kandido Izagierrek Oinati inguruan jasotako ostro lekuko— horri-ren diminutibotzat har daiteke, 'horristo alegia, erreka eta idisko bezala).
 HOTS, a saber, es decir, esto es.
 HOTZITU, hotzu.
 HURA, ha.
 HURBILTZE, hurreratzte.

IKERGAI, objeto de investigación.
 IKERTU, investigado. (AZTERTU, examinado).
 IKERTZAILE, investigador.
 IRITXI, heldu, ailegatu.
 ISTORIO, ingelesezko story. (HISTORIA, ingelesezko history).
 ITXAROTE, igurikatze.
 IZAKI, ser, creatura.
 IZANKI, izanik.

JADANIK, ya.
 JALKI, jalgi, irten, atera.
 JARRAI BAGINTEZ, jarraituko bagina. (Jarraitu aditza intransitiboa da).
 JASAN, aguantar, soportar, sufrir.
 JASORDAINDUZ, contra reembolso.

KOIPE, grasa derretida, grasse fondue.
 KONTATZEKE, kontatu gabe.
 KIRIMILATZE, enroscar, lover.

LARRI, grave, importante.
 LARRU, narru.

LAZKANO, Lazkao. (Ba dakigu, bertako herriak Lazkao osaten duela. Hala ere, Euskaltzaindiak bertarik erabakitzen ez duen bitartean, aldizkari honetan Lazkano idatziko dugu, Galdakano eta ez Galdakao idazten dugun legez*).

LEGEZ, lez, bezala.
 LEKUKO, testigu.
 LIKISTU, lohitu.
 LURRIN, perfume.

MAIZ, sarri.
 MATXINADA, revolución, levantamiento.
 MEHAR, medar, hesfu.
 MERKATAL, mercantil.
 MERKATALGO, comercio.
 MUSKETA, almizcle, musc.

NABARI, evidente, notorio, patente.
 NABARI, advertir, notar, percibir. (NABARITU, advertido, notado, percibido).
 NABARITZE, advertir, notar, percibir, sentir.
 NEUR, medir. (NEURTU, medido).

OPA IZAN, ofrecer, desear.
 ORMA, pared. (HORMA, izotz, hielo, glace).
 ORO, guzti.
 OSTEAN, ondoan, ondoren.
 OTSAIL, febrero.

PARADA, abagadune, aukera, era, ereti, ocasión.
 PINLIPAUZA, ximeleta, mariposa, papillon.
 PREZEZKI, precisamente, a propósito.

SINETSI, convencido.

TANKERA, estilo.
 TXERTA, injertar, greffer. (TXERTATU, injertado, greffé).
 TXIRO, pobre.

UDAL, municipio.
 UHARTE, irla, isla.
 UHIN, olatu.
 UKALDI, golpe.
 UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo).
 URRATS, pauso.
 USNA, olfatu.
 UTIKAN, a paseo, al traste.
 UZTAIL, julio.

XEDE, asmo, helburu.
 XUME, ttipi, txiki.

ZAMA, karga.
 ZANTZU, barrunto, señal, índice, signe.
 ZAPUZTU, abandonado, repudiado.
 ZEREN (ETA), ze, pues.
 ZINEZ, benetan.
 ZIRARRA, emoción, impresión.
 ZORI, suerte, fortuna.
 ZUR, madera, bois.
 ZUTABE, sostengu, pilar, puntal.



ELAIS ALAI
YURRE

DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10 ra
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

AMA & LUR RESTAURANTA

KAFETEGI

36471

Depresinoen azterketaren ondorioak

Bi Psikologi-Biltzar izan dira munduan bateratsu joan den mar-txoan: bata Parisen eta bestea New-Yorken; eta biotako ikergai^{*} nagusia hauxe izan da: depresinoa.

Depresinoa, beraz, lehen erdaraz «neurastenia» esan ohi zena, «modan» ote dago? Depresino nabarmen gertatzen dira, estadis-tikek diotenez, psikiatren kontsultazioen erdiak; eta eritasun^{*} or-ganiko gisa^{*} presentatzen diren beste anitz^{*} ere, atxeterraren^{*} azterketaren ondoren, depresino huts gertatzen dira.

Depresinoaren ifernua ezagutu ez dutenek (depresinoa ifernua balta) nekez uler dezakete gaiso-talde hau; eta depresinoa dute-nekiko maiz^{*} eta gaixtoki jalkitzen^{*} dira irriak eta ujuak.

Gaitza, ordea, larria^{*} da, eta ez fingaitzo egitera eraman deza-keelako bakarrik. Bi Biltzar Nagusion bateratasuna aski^{*} goraki mintzo da depresino eskuarraren^{*} beraren garrantziaz.

Prentsak jakin arazi duenez, funtsezko^{*} aurkikunde^{*} baten bez-peran gaude Psikologiaren mailan; eta depresinoen sustraiari dago-kio, hain zuzen.

Alde batetik, jakin dugunez, Washington-go Unibertsitate iker-tzaile^{*} talde bat ari da lanean, Wino Kuz eta Reich-en zuzen-daritzapean; eta bestetik Columbia-ko Unibertsitateko beste talde bat, Fieve eta Mendlewicz-enean. Biok bide berberetik ari, eta fa-milietorkien gorabeherak belaun^{*} belaun ikertuz, ia segurutzat jotzen dute kakoa: depresino famatuok batetik, eta «X» kromo-somaren «gene»ek bestetik, zenbait lotkia edo harreman sakon badu-tela. Kromosomaren mailan, beraz, depresinoen giltzarria «X»-aren geneen desegokitasunean edo makurreran datza.

Jakina denez, 23 kromosoma-bikote ditu giza-zelulak; eta se-tsuari dagokion 23. bikotean, hain zuzen, gizasemeari «XY» kromo-somak dagozkio, eta emakumeari, berriz, «XX» bikotea.

* * *

Hots, itxura denez, X kromosoman dauden «gene»ei loturik ager-tzen dira bai daltonismoa (alegia,^{*} berdea eta gorria ongi ezin be-reztea), bai «Xg(+)» deritzan odol-ezagugarria, eta bai depresinoa.

Xehetasunetan sartu gabe (ez baita jakintza-adar hori batere ene jakitatea, ezta artikulu honen muina ere), etorki-lege zehatzak aurkitu dira zenbait familian hiru fenomeno horien artean; eta bateratasun horren kakoa hauxe bide^{*} da: **depresinoak kromosoma horren geneetan duela jatorria**. Hori dela-ta, hain zuzen, lithio-zko eta T.R.H.-zko sendabideak (biok farmakologia soil, alegia) arrakes-ta^{*} bikainak lortzen dituzte psikosi-bide betean daudenengan.

Hitz batez: depresinoak, kanpotik ikusirik bederen,^{*} guztiz iz-pirritu-eritasun agertuagatik ere, ADN garrazkinean^{*} eta zelulen ma-terlatasunean eta kimikan dauka funtsa eta... sendabidea. Boron-date-ahuleziatzat^{*} hartu ohi zena (eta erantzukizun^{*} iturri ere bai! Non da, azken funtsean, erantzukizuna, eta non bekatua?) biologi-kontu huts agertzen zaigu azkenean!

Escoffier-Lambiottek xuxenki dioenez (Le Monde, 1973-IV-4): «(Hori frogaturik^{*} agertuko den) egun hori —ezin dezake inork hau zalantzan jar— Kondaira-egun aparta bilakatuko^{*} da: bai psikiatria-ren sallean, bai gainerako zientzi-sail guztietan. Zeren,^{*} lehenengo aldiz, umorearen, izpirituaren eta jokabide soilen eritasun bat, sor-tua duen oker biokimikarekin zehazki lotzeko aukera emango bai-tzaigu».

«Larriak ez, beraz, baina larriegi ere izan daitezke biologi-aurki-kunde honen ondorioak; zeren-eta,^{*} ohi denez eta oso dialektika-ren arabera^{*} denez, orain beste muturreraino joateko arriskua agertzen baita. Alegia: «tira, tira, mutlak! Dena duk biologikoa! Dena duk molekulen mailakoa!»

Kolpea nondik datorren erraz somatzen da; eta bete-betean Freud-ek eta Psikanalisiak jasango^{*} dutela gauza agiria zait. Batez ere filosofiaren eta politikaren mailan Freudek hautatu zituen jo-kabideak ezagututa. Inkontzientearen aita «idealista» bat izan zela entzungo da bazterretan; eta «idealista» hitza, jakina, oso sentidu berezi berezian hartuz esango da.

Eskuindarren txaloak ere, ordea, laster bilduko zaizkie lehenen-goei; Freud ez baita oraindik, beroien ustez, garbitasuna likistu^{*} eta pornografi-uhin^{*} berriari zientzi-oinarria eman dion madarikatua baizik.

Aurkikunde horrek berak, era berean, «ezkertar» psikanalisia kolpatuko du bortizki^{*}; ezen^{*} iraultzaren beharra PERTSONA-GIZARTEA bikotearen barne-dialektikak azaltzen eta funtsatzen badu (gizona gizartearen zerbitzuko ez-baina gizarte gizonaren zerbitzuko jarri behar dela esango luke Cooper-ek, esate baterako), aurkiku-nde horrek, psikologi-drama baten kakoa BIOLOGIA HUTSAREN MAI-LAN, eta pertsona/gizarte bikotetik at^{*} beraz, jartzen duenez ge-roztik, «eskuindar» oinarri bat eskaintzen dio politikari Psikologia-ren mailan. Klase burrukatik eta gizarte-zapalketatik aparte eta berex legozke depresinoak... eta «gainerako Freud-keriak»!...

Aurkikunde horrek, horrela, bazterrak oso harrotzeko itxura dakar, ene ustez, eskuin aldean eta ezker aldean; eta laster erre-paratuko ditugu hauen eta haien arteko tirabiraren lehenengo zan-tzuak.^{*}

Berriz ere, halere, ukaldi^{*} gehiegizko bat dator. Freud, DENA iza-tetik (guztia izatetik, alegia) EZER EZ izatera bihurtu nahi izateko arriskua dakust.^{*} «Arriskua» diot, bai: hurrengo fanatikoen eta iko-noklasten uhinak dakarkeena.

Zeren-eta Freud ez baita Malachias ez Isaias izan; eta ez nahi ere horrelakorik gizonaren adimenaz (eta ideologiez, beraz) arrunt^{*} mesfidatzen zen Vienatar zientzi-gizon apartak.

Batzuek, jarraitzailerik sutuenek, jainko edo profeta bederen bihurtu nai izan zuten Freud; Psikanalisia, Erijiio; eta Zientziaren mailatik, horrela, Mistikaren mailara pasarazi nahi izan zuten. Bai-ta, hein^{*} batez bederen, lortu ere. Orain, beraz, Zientziaren maila-ra bihurtu beharrak, sinestun horien soinekoen urraztea ekarriko du. Eta, berriz ere, apostoluak krisialdian gertatuko!

Zientziaren mailatik ez irtetera, jakina, ERLIJO-GUDUAK erauz^{*} genitzake geure artetik; eta guruzadak eta guruzaden ondoko «pur-gak» bazter.^{*} Egiarako bidetxior apal hori, ordea, gutxiegi zaio gizonari. Aitortzen dugun baino azkarrago da gure nortasuna funtsatzen^{*} duen Absolutu-egarria. Euskal Herrian bereziki, ene ustez, Elizaren Kondairan behin eta berriz frogatu^{*} dugunez.

Freud, horrela, depresinoen mailan eta bestetan jainkotzat balio izan ez digulako, orain behar eta merezi baino aisa^{*} BEHERAGO, UKATUAGO eta ZAPUZTUAGO^{*} ikusteko bezperan garela iruditzen zait.

Eta hala gerta ez dadin, deus^{*} egiterik ez dagoela deritzat. Geroak erranen.

LARRESORO

daude, **dagoz**
dezake, **daike**
dezakete, **daikée**
digu, **deusku**
dio, **deutso**
gaude, **dagoz**

genitzake, **geinkez**
legozke, leudeke, **legokez**
zaigu, **jaku**
zaio, **jako**
zait, **jat**
zaizkie, **jakez**